



**2017KO URTARRILAREN 27KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamazazpiko urtarrilaren hamazazpian, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Ane Irastortza Izagirre, Aitor Altuna Oiarbide eta Marian Zufiria Apeztegia.

Joseba Imanol Aran Barandiaran ez da bertaratu eta aurrez ohartarazi bere ezin etorria.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutako onespenera aurkeztzen da 2017ko urtarrilaren 13an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2016ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 117 zbk.dun fakturen zerrenda, HOGIETA HEMEZORTZI MILA HIRUREHUN ETA LAUROGEITA BEDERATZI EURO ETA HIRUROGEITA HAMABOST ZENTIMO (38.389,75 €)takoa eta 2017ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 3 zbk.dun fakturen zerrenda, LAUREHUN ETA HOGIETA BAT EURO ETA HOGIETA ZENTIMO (421,20 €)takoa, bere espedienteetan daudenak onartzea erabakitzen da.

III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 17-11-01 zbk.dun esped.: zerbitzuan alta ematea 2017ko urtarrilaren 10etik aurrera asteen bi egun eta eguneko 2 orduz, etxeko garbiketa egin eta laguntza pertsonalera-ko. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %15 izango da.
- 17-11-02 zbk.dun esped.: zerbitzuan alta ematea 2017ko urtarrilaren 16tik aurrera, asteen bi ordu etxeko garbiketarako egiteko. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %61 izango da.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-



- 15-01-007 zbk.dun esped.: etxebizitzaren alokairu eta mantentze gastuetarako laguntzatik baja ematea urtarrileko hilabetetik, onuradunak diru sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea izateagatik.
- 15-01-001 zbk.dun esped.: etxebizitzaren alokairu eta mantentze gastuetarako laguntzatik baja ematea urtarrileko hilabetetik, onuradunak diru sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea izateagatik.
- 15-01-005 zbk.dun esped.: etxebizitzaren alokairu eta mantentze gastuetarako laguntzatik baja ematea otsaileko hilabetetik, onuradunak diru sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea izateagatik.
- 17-01-001 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 92,50 €ko diru laguntza ematea urtarrilean hasita. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 17-01-002 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 42,50 €ko diru laguntza eta alokairu gastuetarako hilean 125 €ko diru laguntza ematea urtarrilean hasita. Ematen zaiona eskatutakoaren %50 da.
- 17-01-003 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 92,50 €ko diru laguntza eta alokairu gastuetarako hilean 250 €ko diru laguntza ematea urtarrilean hasita. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.

Rwanda taldeari diru laguntza.-

Rwanda taldeari 2016ko gabonetan, abenduaren 15etik 23ra bitartean, San Benito Ikastolarekin elkar lanean antolatutako "beste mundu bat posible da" jardunaldiko gastuei aurre giteko 815,94 €ko diru laguntza ematea.

IV.- ETXEBIZITZA ETA EKONOMIAKO DIRU LAGUNTZAK .-

Etxebizitza eta Ekonomia gaietarako zinegotziaren proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak honako diru laguntzak ematea erabakitzen du:

- Lazkaoko Udalak eta Lazkaon merkatarien elkarteak, elkarrekin, merkataritzaren sustapenerako 2016ko gabonetako kanpainaren barnean egindako erakusleihu lehiaketan, biztanle sarituek jasotako bonoak dendetan erabili eta bono hauek merkatariak udaletxera ekarri ondoren, hauei, guztira 925 € ematea erabakitzen da, bere espedientean aurkitzen den xehetasunaren arabera.
- Lazkaon merkatarien elkarteari.-
Eskualdeko dinamizatzailaren gastuetarako 1.100 € ematea.

V.- GIPUZKOAKO EROSKETEN ZENTRALAREN BIDEZKO KONTRATAZIOAK .-

- Bizitza eta istripu aseguru kolektiboen kontratazioa.-

Diputatuen Kontseiluaren 2011ko ekainaren 21ean jasotako eskuordetzaz baliatuz, Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuaren foru diputatuak, 2016ko abenduaren 2ko foru aginduaren bitartez, AXA SEGUROS GENERALES S.A. Y AXA AURORA VIDA S.A. (A.E.B.), I.F.Z.: U-95865762, enpresarekin Foru Kontratazioen Zentra-



laren bidez "udal langileen bizi-aseguru eta istripu-aseguru kolektiboak" zerbitzua emateko esparru akordioa (X16022) burutzea erabaki zen.

Lazkaoko Udalarari dagokio, Foru Kontratazio Zentralak tramitatutako espedienteari atxikia dagoen erakundea den aldetik, eta hornidura interesatzen zaion neurrian, 2011ko otsailaren 22ko 3/2011 Foru Dekretuaren 6. artikuluekin arabera, esparru akordiotik eratorritako kontratua esleitzea, formalizatzea eta gastua baimentzea.

Behin esparru akordioa izenpetu ondoren, zerbitzuburuak, 2017ko urtarrilaren 13-an emandako txostenaren arabera proposatu du "udal langileen bizi-aseguru eta istripu-aseguru kolektiboak" zerbitzua emateko kontratua, esparru akordioa burutzea erabaki den enpresa berari esleitzea eta hala formalizatzea.

Lazkaoko Udalak kontratatzea beharko duen zerbitzuaren balio zenbatetsia kontuan izanik, gutxi gorabehera, urteko hiru mila zazpiehun eta hirurogeita bat euro eta hirurogeita hamasei zentimo (3.761,76 €) euroko gastua ateratzen da, BEZik gabe.

Hori dela eta, 2011ko azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaz onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 198. artikuluari jarraituz, bidezkoa da eratorritako kontratua AXA SEGUROS GENERALES S.A. Y AXA AURORA VIDA S.A. (A.E.B.), I.F.Z.: U-95865762, enpresari esleitzea, izenpetutako esparru akordioaren ondorioetan ezarritako baldintzetan.

Ondorioz, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botoekin, honako akordioak onartzen ditu:

LEHENENGO.- "Foru Kontratazio Zentralaren bitartez "udal langileen bizi-aseguru eta istripu-aseguru kolektiboak" zerbitzua emateko eratorritako kontratua (X16022) AXA SEGUROS GENERALES S.A. Y AXA AURORA VIDA S.A. (A.E.B.), I.F.Z.: U-95865762, enpresari esleitzea, esparru akordioa burutzea erabaki den baldintzetan.

BIGARREN.- AXA SEGUROS GENERALES S.A. Y AXA AURORA VIDA S.A. (A.E.B.), I.F.Z.: U-95865762, enpresaren alde baimentzea eta xedatzea aurtengo ekitaldiari dagokion gastua, udal aurrekontuan, gastu programa ezberdinetan, "udal langileen bizi-aseguru eta istripu-aseguru kolektiboak" gastua jasotzen duten 162.05 kontusailen kargura.

HIRUGARREN.- Enpresa esleipendunarekin kontratua formalizatzea.

- Berogailurako C gasolioaren horniduraren kontratazioa. -

Diputatuen Kontseiluaren 2011ko ekainaren 21ean jasotako eskuordetzaz baliatuz, Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuaren foru diputatuak 2016ko abenduaren 2ko foru aginduaren bitartez, SUMOIL S.A. (IFZ.: A48455299) enpresarekin Foru Kontratazioen Zentralaren bidez C gasolioa hornitzeko esparru akordioa (X16016) burutzea erabaki zen.

Lazkaoko Udalarari dagokio, Foru Kontratazio Zentralak tramitatutako espedienteari atxikia dagoen erakundea den aldetik, eta hornidura interesatzen zaion neurrian, 2011ko otsailaren 22ko 3/2011 Foru Dekretuaren 6. artikuluekin arabera, esparru akordiotik eratorritako kontratua esleitzea, formalizatzea eta gastua baimentzea.



Behin esparru akordioa izenpetu ondoren, zerbitzuburuak, 2017ko urtarrilaren 9an emandako txostenaren arabera proposatu du C Gasolioaren hornikuntzako kontratua, esparru akordioa burutzea erabaki den enpresa berari esleitzea eta hala formalizatzea.

Lazkaoko Udalak izandako C gasolioaren kontsumo zenbatetsia kontuan izanik, gutxi gorabehera, urteko berrogeita lau mila ehun eta laurogeita hamabost euro eta hemezortzi zentimo (44.195,18 €)ko gastua ateratzen da, BEZik gabe. Gastuak segidako traktu izaera iraunkorra du, konpromiso kreditu gaiari dagokion finantza eta aurrekontu xedapenen ondorioetarako.

Hori dela eta, 2011ko azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaz onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 198. artikuluari jarraituz, bidezkoa da eratorritako kontratua SUMOIL, S.A. enpresari esleitzea, izenpetutako esparru akordioaren ondorioetan ezarritako baldintzetan.

Ondorioz, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako akordioak onartzen ditu:

LEHENENGO.- "Foru Kontratazio Zentralaren bitartez C gasolioa hornitzeko esparru akordiotik" eratorritako kontratua (X16016) SUMOIL S.A. enpresari (IFZ.: A48455299) esleitzea, esparru akordioa burutzea erabaki den baldintzetan.

BIGARREN.- SUMOIL SA, N.I.F.: A48455299, enpresaren alde baimentzea eta xedatzea aurtengo ekitaldiari dagokion gastua, udal aurrekontuan, gastu programa ezberdinetan, C gasolioa kontsumoen gastua jasotzen duten 221.04 kontusailen kargura.

HIRUGARREN.- Enpresa esleipendunarekin kontratua formalizatzea.

VI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak laurden gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



LAZKAOKO
UDALA